

# LAUGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

**Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila**

## IDATZIZKO AZTERKETA

- **Idatzizko azterketak bi proba ditu.**
- **3h 10 minutu** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p><b>IRAKURMEN-PROBA</b></p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dituzu. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera, guztiak ere balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dituzu zuzen. Oker erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez.</p>	60-70 minutu	20	10
<p><b>IDAZMEN-PROBA</b></p> <p>Bi ariketa dauzka. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dituzu eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	120 minutu	30	15

- **Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, zeuretzat da.**
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun aparteko orrietan egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

■ **1. ariketa: aukera anitzeko galderak**

Irakurri ondorengo testua eta erantzun testu horri buruz jarraian egiten zaizkizun galderei.  
 Erantzuna markatu. Bakarra da zuzena.

**NORK ERABAKI ZUEN ERLE TXIKIA HANDITZEA?**

Erlearen propagandistei sarritan entzun eta irakurri zaie erlearen lana nahitaezkoa dela munduko landare askoren iraupenerako. Harro diote erlezainek ezitia, jateko polena, erregina-jelea eta beste produktu zenbait ekoizteaz gain, beraiek bermatzen dutela landarediaren polinizazioa. Ez hori bakarrik: kofoinetan Varroa Jacobsonii eta bestelako gaixotasunak orokortu direnean, erlezainak izango lirateke espeziearen iraupenaren bermatzaile. Baina... egia horrek beste erdia ustela balu? Egia balitz erlearen gaixotasunak lotuta daudela azken ehun urteotan erlezainek xomorro hori oker manipulatu izanari? Frogatuko balitz planeta osoko erlezain gehienek gauzak aldrebes egiten dituztela? Hori diote, hain zuzen, erle txikiaren aldekoek, eta proposatzen dute gaur munduan nagusitu diren erleak baino txikiagoak haztera itzuli behar dugula.

Kofoin edo erlauntza barruan, erleak umeak eta ezitia abaraska edo orrazeetan ipintzen ditu. Hori hexagono formako gela txiki dotorez osatuta dago. Naturan eta antigoaleko erlauntzetan animaliak bere gisan antolatzen zituen abaraskak, bi aldeetatik gelatxo hornitutako opilak balira bezala. XIX. mendean hasi ziren erledunak argizari edo ezkoz egindako laminak ipintzen, makinaz estanpatutako laminak, erleak lana azkarrago egin zezan. Kontua da abeltzain burutsuenak azkar ohartu zirela hexagono handiagoz estanpatutako laminak ipiniz gero, erleek gelatxo handiagoak egiten zituztela, eta horietatik erle handiagoak jaiotzen zirela. Horrela egin zituzten batzuek gero eta erle handiagoak sortzeko esperimentuak.

Gaur egun, munduko apikulturaren gehienbat 5,4 edo 5,7 milimetroko diametroa duten gelaxkako laminak erabiltzen dira. Aldiz, erle txikiaren aldekoek 4,9 milimetroko gelatxoak dituen abaraska aldarrikatzen dute, jatorrizkoen tamainatik hurbilago dagoelako. Dezima gutxi horiek hain inportanteak ote diren? Bai, antza denez. Batetik, gela handietako erleak txikietan sortu direnak baino gehiago hazten dira, heren bat handiagoak dira. Bigarrenik, 5,4 milimetrokoetan arrautzatik jaiotzen egun bat edo bi gehiago behar dituzte 4,9 mm-koetan baino. Bestalde, azalera berdineko abaraskan gela txiki gehiago sartzen da handi baino, eta askoz erle txiki gehiago jaiotzen dira. Abaraska barruan, ondorioz, tenperatura pare bat gradu beroago egoten da 4,9koetan, gela handikoetan baino. Diferentzia horietan dakusate erle txikiaren aldekoek gaurko erle “modernotuaren” arazo askoren iturria. Horien ustez, erle “modernotua” berez naturaz dagokiona baino handiagoa egin da, eta, aldiz, genetika guztia txikiagoa izateko dauka programatuta. Horregatik, gaurko kolonia gehienak estresatuta eta ahulduta daude.

Gainera, oharkabean bidea ireki zaie Varroa zorriari eta beste gaixotasun gehiagori. Varroa erlearen gelatxo barruan hazten da umearekin batera, eta erle “modernotuei” arrautzatik jaio arteko epea kasik bi egunez luzatu zaienez, bizkarroiari garatzeko aukera handiagoak eman zaizkio. Bestalde, erle handien habietan tenperatura pare bat graduan apalagoa da, eta horrek ere mesede egiten dio Varroari. Ordainetan, erle txikiarekin lan egiten dutenek diote animalia askoz sanoagoa daukatela, Varroa eta beste gaitz batzuei inolako botikarik gabe aurre egiteko gauza dena, eta etorkizuneko erlezaintzak nahitaez hortik jo behar duela.

Erlearen beraren manipulazioaz aritzerakoan beti aipatzen da jakintsu belgikar bat, Ursman Baudoux. Hark uste zuen manipulaturako abereek ondoko belaunaldietan “hobetze” horiek gordeko zituztela beren genetikan, baina ez da hala gertatu, Charles Darwin-en ikuspegiak arrazoi duelako: gaur gure erlezainek hazten dituzten animalioek beren gisan libre utziz gero, berriro aspaldiko neurrietara itzultzeko joera dute.

Erleak 5,4 mm-ko gelatxoan jaio eta handiagoa izanik ere txikiagotzeko joera du, bidea libre uzten bazaio. Baina 4,9 mm-raino txikiagotzeak badu zenbait zailtasun, adituek urratsez urrats esplikatzeko dituztenak.

5,4 mm-ko erleari uzten bazaio bere abaraska libreki egin dezan, lehen urratsean 5,1 mm-raino txikiagotzen da. Bi belaunaldi, bi urrats, behar dira 4,9 mm arteko trantsizioa egiteko.

Erle txikiaren gaiak aziendarik ez duen edozein herritarri naturaz eta ekologiaz hausnarketa egiteko puntua ematen dio. Baina XXI. mende hasierako erlezainek zorrotz aztertu eta eztabaidatu beharko dute kontu hau. Erlearen biziraupena kimikari lotuta daukan erlezaintza ez da iraunkorra, iraultza eskatzen ari da.

**ZUBIRIA, P. Argia. 2008ko apirila. Egokitua**

**1. Zer uste dute erle txikiaren aldeko erlezainek?**

- a) Erlezain gehienak oker ari direla erle-hazkuntzan eta lehenera bueltatu behar dugula.
- b) Erlezainek lan handia egin dutela erlearen alde eta ezinbestekoak direla gaixotasunak saihesteko.
- c) Erlearen aldeko propagandak asko izan duela gezurretik.

**2. Zer aldaketa nagusi izan zen erlauntzetan duela bi mende?**

- a) Bi aldeetatik gelatxoz hornitutako opilen modukoak jartzea.
- b) Gizakiak makinaz egindako laminak jartzea.
- c) Hexagono estanpatuez apaindutako laminak ipintzea.

**3. Zergatik da garrantzitsua gelaxken tamaina?**

- a) Gelaxka txikietan daudenek denbora gehiago behar dutelako arrautzetatik jaiotzeko.
- b) Gelaxka txikietan ez dagoelako handietan adinako epeltasunik.
- c) Gelaxka handiagokoetako erleek desabantaila nabarmenak dauzkatelako txikietakoen aldean.

**4. Nola itxi bidea Varroari eta beste gaixotasun batzuei?**

- a) Erlea arrautzetatik jaiotzeko epea gutxienez bi egunez luzatuta.
- b) Erle handien habietako tenperatura pare bat gradu jaitsita.
- c) Erlezainek erle txikiagoekin lan eginda.

**5. Zer gertatu da manipulazioz handitutako erleekin?**

- a) Manipulazioak manipulazio, erleek berriz ere txikiagotzeko joera daukatela.
- b) U. Baudoux adituaren ustez, genetikoki eraldatutakoa ez dago belaunaldi bakar batean lehengoratzetik.
- c) Handitutako erlea berriz txikitze, erle txikiekin gurutzatu behar da bi belaunaldiz.

**6. Nola txikiagotzen da erlea?**

- a) Bere kasa utziz gero, eragin gabe, bi belaunaldiren ondoren lehenera itzultzen da.
- b) Zailtasunik gabeko prozesu erraz eta natural baten bidez gertatzen da, erlezainak lagunduta.
- c) Lehenengo 5,1 mm-ko abaraska jarri behar zaio, eta, ohitzen denean, 4,9koa, ondoren.

**7. Zer ondorio atera liteke irakurgai honetatik?**

- a) XXI. mendeko erlezainek gaia aztertu eta erlea hobetzeko bidea asmatu beharrean dira.
- b) Erlezaintza ez da iraunkorra, kimikari lotuta egon ezean.
- c) Erleak gizakiaren laguntza behar du desagertuko ez bada.

**8. Nola laburbilduko zenuke ondoen testua?**

- a) Erlezaleen eta erlearen lana ezinbestekoa da munduko landare askoren biziraupenerako. Gizakiaren lanari esker gaur egungo erlea tamaina handiagokoa izanik, gogorragoa da hainbat gaitzi eta zomorreri (besteak beste, Varroa) aurre egiteko. Baina guztiak ez daude ados erlea handitzearekin, eta arriskuak ere ikusten dizkiote.
- b) Gizakiak handitu egin zuen erlea, etekin handiagoak lortzeko, baina horrek ondorio kaltegarri batzuk ere ekarri dizkio, batez ere erlea orain ahulago dagoelako zenbait gaitzen aurrean; horregatik, erlezale batzuek diote lehenera bueltatu beharko genukeela, erle txikiagoa hazi, eta gaiaren gaineko gogoeta eskatzen dute.
- c) Erlezale batzuen ustez, erlezale gehienak okerreko bidetik ari dira lanean, erleak hazteko prozesuan gehiegi esku hartzen ari direlako eta pixkanaka tamaina handitu egin dutelako. Gaur egun, erleei urtean bi aldiz intsektizidaz lagundu behar zaie bizirik irauteko, Varroa bezalako gaitzei aurre egiteko, eta hori ez da inondik ere jasangarria, horrek oso bide laburra du.

■ **2. ariketa: aukera anitzeko galderak**

Irakurri ondorengo testua eta erantzun testu horri buruz jarraian egiten zaizkizun galderei.  
 Erantzuna markatu. Bakarra da zuzena.

**HITZEN GATAZKA**

Urteak dira idazleak euskal gatazkaren gaia literaturan lantzen hasi zirela, baina maiz itzultzen da literaturaren eta memoria hurbilaren arteko harremanari buruzko eztabaida. Gaurkotasuna du memoriak.

Badoa eta badator; sasoika. Ziklikoa da euskal literaturaren eta euskal gatazkaren arteko loturari buruzko eztabaida. Ez da inoiz erabat desagertzen, eta berriz azalarazteko pizgarririk ere ez zaio sekula falta. Bueltan da eztabaida berriz; sasoia du. Gertatu denaren kontakizun «egiatia» egin beharraz mintzo da Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, ETAk armak utziko zituela adierazi zuenetik. Eta gerora barkamena eskatu arren, euskal idazleen erreakzioa eragin dute F. Aranburu idazlearen hitzek ere. «Euskal autoreek ez dute ETArri buruz idazten, ez direlako aske». Ez da egia, aditu eta idazleen ustez; kontrakoa, eta hainbat ahots eta iritzi azaldu dira horren adibideak eman dituztenak.

«Etxeko lanak ongi eginak ditugu. Euskarazko idazleok askoz hobeki egin ditugu, erdarazkoek baino». Iban Zaldua idazlearen hitzak dira. *Gure Gauza* deitzen duenaz mintzo da Zaldua, haren ustez, egina du ekarpena euskal literaturak. Areago: «Gizarteak izan duen biolentziaren gaineko ikuspegi-aldaketan izan du eraginik literaturak, ez, agian, zuzenean, baina bai homeopatikoki. Hori sinetsi nahi dut nik».

Gatazkaren inguruko eskaintzak erakarri zuen Zaldua euskal literaturara. «90eko hamarkadara arte nahiko gutxi irakurtzen nuen euskarazko literatura, eta erdi behartuta, gehienetan. Baina aldatu egin zen hori. *Gure Gauzari* buruz eskaintzen zidan ikuspegi bat ez nuena aurkitzen ez kazetaritzan, ez eta soziologoan, historialarien eta politikarien hitzetan ere. Ezta gaztelaniaz idazten zutenengan ere».

Kontsentsua badago gatazkaren ibilbide literarioa hamarkadaka banatzeko orduan. 90eko hamarkada aipatzen dute gehienek mugarriztat, baina marka lehenagotik dator, eta ez da oso urrutira joan behar horren adibide bat aurkitzeko: 1974an idatzi zuen Ramon Saizarbitoria idazleak etakide baten azken uneak kontatzen dituen *Ehun metro* lana, baina 1976an argitaratu zuten. Literatura modernoaren hasieratik bertatik dago, beraz, gatazkaren gaia presente. 80ko hamarkada, ordea, esperimentazio sasoia izan zen. Izan ziren salbuespenak, baina ez ziren asko izan Euskal Herriko kaleetan gertatzen zirenei buruz idatzitakoak. Ez zuten bestelako gaiak lantzen zituzten liburuek besteko oihartzunik ere izan. Orduetik dator euskal idazleek gatazkari ihes egiten zioteneko mitoa, eta batzuek horri heldu diote beraien usteak oinarritzeko eta arrazoitzeko orduan.

90eko hamarkadan aldatu zen hori. Iragan hurbilari errealismoz begiratzen zioten lanak ugaritu egin ziren. Atxagaren *Gizona bere bakardadean* eta Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*, Hernandez Abaituaren *Etorriko haiz nirekin*, Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno Gorria...* Gatazka era zuzenean lantzen duten 40 bat literatura-lan bildu dituzte Hasier Etxeberria eta beste zenbait idazlek osatutako blog-zerrendan. Marijo Olaziregi kritikariak dio «betikoa da gaia, baina eztanda egon da 90eko hamarkadaz geroztik: booma».

Garai horretan, gatazkak izan diren guneetan, globala da memoria hurbila lantzeko joera. Halere, berezia da Euskal Herriko kasua, Olaziregiren hitzetan. «Terroristaren irudia eta gatazka bera tabu gisa ez garatzeko, nobela askok terroristaren ikuspuntutik beretik tratatu dute gaia hemen. Ekintza egiten ari den ETArri kide baten ikuspuntutik». Ez omen da hain ohikoa. «Terrorismoaren gaia landua dute beste literatura batzuetan ere, Erresuma Batuan, adibidez; baina gehienetan ez da tratatu egilearen ikuspegitik, ekintza horiek sufritzen dituen gizartearenetik baizik. Desmitifikatzeko eta tabuak hausteko asmoa dago horren atzean. Ikusi nahi da zerk eraman dezakeen pertsona ekintza horiek egitera. Zerk eraman dezakeen gizartea muga horretara. Badaude bestelako ikuspuntua duten lanak ere, baina kasu berezia da aipatu dudana».

Badago beste adostasun bat aditu eta idazleen artean ere: gatazkaren inguruko literatura-lanen kalitatea. Testu guztiak ez dira onak, baina gai horri lotutakoak dira dauden onenatariko batzuk. Juan Mari

Torreldaik idazleei hamar liburu onenak hautatzeko eskatu zienean, zerrendako bost ziren gatazkari loturikoak. Erdiak. Gaur egun, ehunekoa ez litzateke oso bestelakoa izango.

«Esaten da kontakizun ofizial bat idatzi beharra dela, baina kontua da hemen ez dagoela memoria bakar bat, ez dago biktima bakar bat, eta ezin da kontakizun bat eta bakarra eta ofiziala izan. Literaturak memoria kolektibo hori lantzen lagundu dezake». Hori da I. Arroita literatura-ikerlariaren lanaren ildoetariko bat; memoria eta literatura ezkontzea. «Trauma kolektiboak lantzeko bide izan daiteke literatura. Ez da inperatiboa, baina ez da kasualitatea historia bortitza duten herrialde guztietan hori egitea».

**ASTIZ, I. Berria, 2011ko abendua (Egokitua)**

**1. Euskal gatazkaren eta literaturaren gaineko zein esaldik dio egia?**

- a) Batzuen ustez, literaturaren hastapenetatik garatu da euskal gatazka liburuetan.
- b) Askok dira euskal gatazkaren gaia literaturan gaur arte landu ez dela diotenak.
- c) Tarteka itzultzen da euskal gatazka eta literatura lotzen dituen polemika gurera.

**2. Zer aipatzen du Patxi Lopezek?**

- a) Gertatutakoa kontatzeko garaia dela, eta halaxe egingo duela.
- b) ETAk armak uzteak libreago uzten gaituela egia kontatzeko.
- c) Benetan gertatu dena kontatzeko dagoen beharra.

**3. Fernando Aranburuk uste zuen...**

- a) Euskal idazleei ezer gutxi ardura zaiela gatazka eta horregatik ez dutela idazten horren gainean.
- b) Euskal idazleak ez direla euskal gatazkaz mintzatzen gerta dakiekeenaren beldur direlako.
- c) Euskal idazleak ez direla euskal gatazkaz mintzatzen egoerak erakartzen ez dituelako, nahi ez dutelako.

**4. Zer pentsatzen du Iban Zalduek?**

- a) Euskal literaturak euskal gatazkaren gaian jendeak duen pertzepzioan eragin duela.
- b) Euskal idazleek ekarpen oso partziala egin diotela euskal gatazkaren gaiari.
- c) Euskal literaturak euskal gatazkari egin dion ekarpena ez dela kontzientea izan.

**5. Non jarriko genuke euskal gatazka eta literatura lotzen dituen abiapuntua?**

- a) Benetako abiapuntua 90eko hamarkadan jarriko genuke, Saizarbitoriaren lanarekin.
- b) 1974an argitaratu zen gatazkaz mintzo zen lehen euskal liburua: *100 metro*.
- c) *100 metro*ekin hasi zen lanketa, eta susperraldia 90eko hamarkadan izan zen.

**6. Zein da 80ko hamarkadako liburuen ezaugarri bat?**

- a) 80ko hamarkadan idatzitako liburuek, oro har, ez ziotela errealismoz begiratzen euskal gatazkari.
- b) 80ko hamarkadan gatazkari buruz idatzitako liburuek oihartzun handirik izan ez izanak eragin duela gaur eguneko ustea.
- c) 80ko hamarkadan euskal gatazkari buruz idatzitako liburuek bestelako gaiez landutakoek adinako oihartzuna lortu zutela.

**7. Gatazka euskal literaturan lantzeko moduak badu ohikoa ez den zer edo zer:**

- a) nobelaren ardatz, protagonista eta iritzi-sortzaile terroristak bera izatea.
- b) terroristak bera izatea narratzailea.
- c) terroristak terrorismoa desmitifikatzeko egiten duen jarduna.

**8. Nolakoa da, gaur egun, euskal gatazka gaitzat daukaten literatura-lanen kalitatea?**

- a) Orain dela urte batzuetako proportzio berean jarraitzen du.
- b) Gehiago dira lan kaskarrak onak baino, adituen ustez.
- c) Idazleen ustez, gehien-gehienak kalitate handikoak dira.

**9. Zeinek laburbiltzen du ondoen artikulua?**

- a) Euskal gatazkaren gaia konstante bat da euskal literaturan. Euskal idazlanik onenak "Gure Gauza"z idatzitakoak dira. Errealismoz egindako kontaketa 90eko hamarkadan hasiko dituzte idazleek.
- b) Euskal gatazkaren gaia agertu eta desagertu egiten da literaturan. Idazle askok uste du euskal idazleek ez diotela muzin egin gatazkaz idazteari. Hori 90eko hamarkadatik aurrera argiago ikusten da. Idazleek, oro har, terroristaren pertsonaia hartzen dute kontaketarako.
- c) Euskal idazleak hasiera-hasieratik hasi ziren euskal gatazkaren gaia errealismoz lantzen. Idazle "handiei" esker ezagutu ditugu irakurleok gaiari buruzko libururik garrantzitsuenak.

## 4. HE

## IRAKURMENA

### ■ 3. ariketa: identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Adierazi testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun testu zatietako bat sobera dago.

### ELEBITASUN PASIBOAREN AJEAK

Eguneroko egoera komunikatiboa da honakoa: batetik, euskaraz hitz egin nahi duen euskal hiztuna; bestetik, euskaraz ulertu bai, baina euskaraz hitz egiten ez duena. Zeri deitzen diogu elebitasun pasiboaren egoera komunikatiboa? Bada, aurreko egoera komunikatibo horretan hitzun bakoitzak bere hizkuntzan jarduteari.

**1** Teorian inork ez du inor hizkuntza aldatzera behartzen.

Beraz, erdal hiztunak gaitasun pasiboa dauka euskaraz.

**2** Ulertu egiten du: horra zeri zor zaion gaitasun pasiboaren izendapena. Ele bitan ari dira, nor berean, inor inoren mendeko bihurtu gabe. Hori guztia teorian gerta omen daiteke. Eta praktikan ere gertatu, gertatzen da: nik neuk praktikatzen dut neure koinatu batekin. Bera hobeto moldatzen da erdaraz, eta erdaraz mintzo zait; ni hobeto moldatzen naiz euskaraz, eta euskaraz mintzo natzaio.

**3** Zerbait ulertuko dio, baina hala ere hainbat xehetasun galduko ditu bidean. Eta esanahiaren galera hori ez da hil ala biziko kontua izango testuinguru ez-formaletan ari denean, baina beste hainbat komunikazio-esparru formaletan, dituen ondorioak dituelako, ezinezkoa da. **4**

Beraz, asertibitateak ez du miraririk egiten komunikazioaren eskakizunak zorrotzak direnean. Ez da aski solaskidearen borondate ona gu erdaraz hitz egitera ez behartzeko. Komunikazioaren jarduna, hizketa, ekintza soziala da definizioz, eta giza eta gizarte-bizitzaren aurrebaldintza: hitzaren jardunik gabe ez dago bizitza sozialik, ez dago gizarte-funtzionamendurik. Hori eta horrenbestez, hizkuntzaren egitekoa gauza garrantzitsuegia da nolana planteatu eta ebazteko. **5**

Horiek horrela, elebitasun pasiboaren erabilerak aje gehiegi ditu komunikazioan oinarritzen den bizitza sozialaren eskakizunak betetzeko. Eguneroko ogia eta egunkaria erosteko balio diezaguke, baina muga handiegiak ditu gurean. Hizkuntzen arteko distantziak ere ez digu laguntzen euskaldunoi, ahaidetasunik gabekoak baitira bateko euskara eta besteko bi erdarak.

**6** “Ia elkar ulertzeko moduko hizkuntzak baldin badira, zergatik ibili behar dugu komerietan hizkuntza kontu hauetan”. Horra hizkuntza hegemonikoaren hitzun hegemonikoari erraz asko burura dakioken aurreiritzia.

Nondik datoz elebidun pasiboaren edo hartzailearen ajeak? Zergatik ezin ditu aurrez aurre daukan euskaldunaren hainbat mezu, esanahi eta ñabardura ulertu? Ulermenaren gakoak zergatik ezin dira atera eta bakandu hitzunaren gaitasun komunikatibo orokorraren erreperitorioetik? Egia ote da, edo zenbateraino da egia honako uste hau: “Ez du euskaraz egiten, baina dena ulertzen du”. Dena ulertu, baina gaitasun aktiborik ez. Horra, miraria.. **7** Euskaraz datozkion input guztiak edo gehienak ulertzeko, euskararen corpus zabala ezagutu beharko luke, eta hori, jakina, ez da modu pasiboan lortzen den trebetasuna. Ez dezagun, beraz, ulermena gaitasun pasibotzat jo, hizkuntza bat ulertzea ez delako jardun komunikatibo aktiborik gabe eskuratzen.

Gaur egun aho batez onartutako iritzi hau zurkaiztu nahi nuke: “Hizkuntza erabiltzen den neurrian bakarrik ikasten da, erabilera da hizkuntz gaitasun komunikatiboaren neurri eta muga”. Bestalde, ez dago erabilera aktiborik gabeko hizkuntz gaitasunik, ustezko ikasketa akademiko teorikorik. **8** Beraz, euskaraz ulertuko bada, euskararen erabilera ezinbesteko premisa dugu. Ez dago erabilerarik inplikatzeko ez duen ustezko ulermen-maila gramatikalik eta teorikorik.

Hori eta horrenbestez, izatez ezinezkoa da ulermen-maila pasibo askirik edukitzea hizkuntza batean, hizkuntza horren erabilera aktiborik gauzatu ez baldin bada. **9** Ondorio horrek azken galderara garamatza zuzen-zuzen: elebitasun pasiboak betetzen ote du oinarritzko baldintzarik oinarritzko komunikazio-erreperitorioa behar bezala mamitzeko? Ez dirudi.

**ODRIOZOLA, J.M** *Administrazioa euskaraz, 2010eko uztaila. Egokitua*

**4. HE**

**IRAKURMENA**

**■ 3. ariketa. Erantzun-orria**

- A. Euskaldunoi behin baino gehiagotan gertatu zaigun egoera baita ulermen txarraren ondorioz nahigaberen bat edukitzea mintzaide genuenak gure esanak gaizki ulertzeagatik.
- B. Nolanahi ere, diodan bide batez, hurbiltasun linguistikoaren auzi hori ez dakidala beti aldeko faktorea den: hizkuntza minorizatua debalutzeko arrazoia ere izan baitaiteke hiztun hegemonikoaren aldetik.
- C. Badaki euskaldunak esaten dizkion gauzak ulertzeko adina, nahiz eta euskaraz hitz egiteko gai ez izan.
- D. Alegia, euskaldunak berean eta euskaraz ulertzen duen erdaldunak bere erdarari.
- E. Bizitza soziala ahalbidetzen duen oinarriko baldintza dugu hizkuntza, eta hizkuntzari esker burutzen dugu gizarte-ekintza oro.
- F. Ulermena bera ere, aurreratu dugun moduan, gaitasun aktiboa delako izatez, eta erabileraren poderioz eskuratutakoa.
- G. Zeren eta, ulermena bera ere ez baita izatez gaitasun pasiboa, gaitasun aktiboa baino.
- H. Euskaldun pasiboen artean euskarazko gaitasun-maila ez da bakarria, eta horietako asko sekula ez direla euskaldun *oso* izango;
- I. Gramatikagaitasuna bera ere erabileraren poderioz lortzen da, hizkuntzalarien berariazko teoria-gogoetak salbuetsita.
- J. Elebitasun pasiboa aplikatzea, ordea, ez da batere sinplea. Euskaraz ulertzeko ulermen-maila asko daude, eta euskaldun berri asko ez dira gai aurrez aurre daukan euskaldunaren esanak ulertzeko.

**Dagokion letra ondoko laukietan idatzi:**

<b>Hutsuneak</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>
<b>Testu zatiak</b>									

## 4. HE

## IDAZMENA

### Oharrak:

- Ondoren, bi ariketa dituzu. Biak egin behar dituzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Idatzi garbi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - eskatutako guztiari erantzun diozun,
  - ideiak garbi adierazi dituzun,
  - euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU  
ARIKETAK, HORRETTARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN EGIN  
BEHAR DITUZU**

### ■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** egin behar duzu.

Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Aldian behin trebakuntza-ikastaroa egiten duzue lankideok, lanerako gaitasuna handitzeko eta eguneratzeko. Duela gutxi egin duzue azkenekoa, eta zu ez zinen batere gustura geratu, hobetzeko edo zuzentzeko hainbat alderdi nabarmen ikusi baitzenituen. Balorazio-orrian adierazi zenuen iritzia, baina trebakuntza-arduradunari gutuna idaztea komeni dela pentsatu duzu, azalpen gehiago emateko.

Idatzi eskutitza ikastaroaren gaineko iritzia emateko, eman adibideak eta proposatu zure ustez berez nolakoa izan behar zukeen.



■ **2. ariketa:** Idatzi iritzi-artikulu bat Administrazioa Euskaraz aldizkarirako.

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

**1. testu-aipamena**

**HIRIGINTZA-POLITIKAK ETA BENETAKO PARTE-HARTZEA**

Agintariek aurkeztutako plan estrategikoen, teorien, parte-hartze zabala sustatu beharko luketela dio Jordi Borjak. Sarri, ordea, botere ekonomiko-politikoaren jardura legitimatzea beste funtziorik ez duten asmo ederreko hitzetan geratzen direla uste du. Antzeko iritzia dauka Mikel Alonso arkitektoak. Donostiako zenbait proiektu urbanistikoren inguruko auzietan parte hartu du herritar gisa, eta badaki “partaidetzazko hirigintza” kontzeptuak zer tranpa ezkututzen dituen. Ezagutzen dituen hiruzpalau proiektu urbanistikoren adibideak jarri ditu, kasu konkretu bakoitzean parte-hartze aktibo horren benetako aurpegia zein den azaltzeko. Egiako San Frantzisko plazako aparkalekuen prozesuaz, adibidez, hauxe dio: “Tranpa zein den? Udalak ahal zuen guztia egin zuen gu banakako gisa aurkezteko, izena ematera banan-banan joateko, talde baten izenean egiteko aukera eman beharrean. Eta gure artean harremanik ez izaten saiatu ziren. Gainera, bilerak antolatzeaz eta aktak idazteaz (ezin ziren aldatu, tranpeatuak zeuden arren) Udala arduratzen zen, eta azken erabakia ez genuen ezagutu prentsak publikatu zuen arte”.

**TORNER, J. Larrun, 128 zk. Egokitua.**

**2. testu-aipamena**

**KILOMETRO KOADROKO 130.000 BIZTANLE**

Hong Kong hiriko Mong Kok da, kilometro karratuko 130.000 biztanlerekin, munduko dentsitate handiena duen auzoa. Hong Kong hegoaldeko etxe orratz eremu bat da, etengabeko zaratan eta mugimenduan murgildurik bizi den inurritegi erraldoia. Mundua 7.000 milioi biztanle izatera iritsi zenean, hedabideen arreta erakarri zuen, eta auzokideen bizi-kalitate eskasa salatzen aprobetxatu zuten auzokideek: airearen kalitate txarra, soinu-kutsadura eta argi-kutsadura, segurtasun-gabeziak... Munduko populazioaren hazkundearen martxa ikusita, etorkizunean bati baino gehiagori tokatuko zaio horrelako auzoetan bizi izatea.

***Gaztezulo. 2011ko abendua. Egokitua***

### 3. testu-aipamena

#### **REALA ETA “EUSKARAREKIN BAT”**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.200.000 euro eman dizkio Realari elastikoetan “Euskararekin bat” leloa eramateagatik eta euskararen aldeko neurri batzuk hartzeagatik (tartean, euskara-plana abian jartzea).

Etorkizunera begira jarri aurretik, begira diezaiogun egungo egoerari. Realak Bai Euskarari Ziurtagiria du, “Bidean” mailan. Zer gertatzen da, euskaraz mailaz igotzeko diru-laguntza behar duela? Beste enpresa batzuek beren poltsikotik ordaintzen dute euskararen alde hartzen dituzten neurriak. Realak ezin du hori egin?

Beste batzuek askoz gutxiagorekin konformatu behar dute. Euskararen normalizazioari dagokionez, zernolako ekarpena egingo dio Realari emandako dirutzak? Foru Aldundiak ez du bestelako lehentasunik? Demagogoa izatea leporatuko digute, baina demagogoa da errealitatea: bestelako diru-laguntzak murrizten dituzten garaian, Realari halako dirutza ematea ere! Ez dago euskararen normalizazioan gauza hoberik 1.200.000 euroekin egiteko?

**Tolosaldeko Euskararen Semaforoa. zuzeu, 2010eko abuztua. Egokitua**

### 5. testu-aipamena

#### **ZERGATIK TABAKOA?**

Tabakoaren aurkako gurutzada abiatu dute politikariek, argudio honi helduta: herritarren osasunaren zaintza. Tabernetan erretzea debekatu dute, eta, orain, elkarte gastronomikoetan ere ezin dela erre ohartarazi dute.

Arriskutsua da tabakoaren kea, jakina. Minbizi-eragileak ditu: karbono monoxidoa, hidrokarburo aromatiko poliziklikoak, arsenikoa... Baina, hain arriskutsua bada, nola izan daiteke legezkoa tabakoa saltzea?

Eta, bestetik, zergatik ez debekatu substantzia horiek beraiek modu askoz ere masiboagoan atmosferara isurtzen dituzten jarduerak? Zergatik ez egurtu karbono monoxidoaren isurle ikaragarri diren ibilgailuak?

Nola daiteke dioxina, gas eta metal astunen sortzaile diren errauste-plantek, porlan- eta paper-fabrikek, petrolio-findegiek eta zentral termikoek inolako eragozpenik gabe jarraitzea herritarren osasunari kalte egiten? Zeren, gainera, ke asko dagoen taberna batera sartzea herritarren esku dago, kasu gehienetan; enpresa kutsagarri baten eta autoen kutsaduratik ihes egiterik ez dago.

**PETXARROMAN, I. Berria, 2011ko urtarrila**

### 4. testu-aipamena

#### **EMAKUMEAK MARTXAN EUSKAL HERRIAN**

Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrian ibiliko da, emakumeen eskubideak aldarrikatuz. Aurten ondokoa errebindikatuko dute: lan-baldintza kaxkarrak ez izatea, emakumeen aurkako bortizkeria ezabatzea, ugalketa-eta sexu-eskubidea, eta elikagaien subiranotasuna.

Hemendik, emakumeek jasaten duten soldata-desberdintasuna nabarmendu nahi dugu. Espainian egindako azken azterketaren arabera, emakumeek irabazten duten batez besteko soldata gizonek jasotzen dutena baino %26,3 txikiago da. Desberdintasun horren jatorriak bi dira, batik bat: emakumeen lan-baldintza kaxkarragoak eta aldi baterako kontratuak. Lanaldi partzialeko kontratuen %80 baino gehiago emakumeenak dira.

Emakumeen eskubideak errespetatzeko, politika aktiboak egin behar dira. Administrazioek eta gobernuek, alderdi politikoek, enpresariek, sindikatuek, erakundeek, eskolek, herritarrek... ahalegina egin beharko dute urtero Emakumeen Nazioarteko Eguna beharrezkoa izan ez dadin.

**ARREGI, J.M. Argia, 2010eko martxoa. Egokitua**

### 6. testu-aipamena

#### **ALOKAIRUKO AMAK, UMEA SALGAI**

«Alokairuko ama» batek Belgikako bikote batentzat ume bat izateko 10.000 euro jaso zituen; baina, haurdunaldian tratua apurtu, eta alaba beste bikote bati saldu zion 15.000 euroren truke.

Justiziara jo arren, bikoteak ezin izan zuen ezer egin alokairuko amaren iritzia aldatzeko; izan ere, legeak argi eta garbi dio bera dela umearen ama.

Eta aita? Hori ere argi dago: alokairuagatik 10.000 euro ordaindu zuen bikoteko X jauna, berarena baita alokairuko amak haurdun geratzeko erabili zuen hazia. Baina kontutxo hori ez zaio, itxura denez, justiziari lar axola.

Eta bada gehiagorik ere, alokairuko ama horrek ez dio utzi bere zerbitzuak eskaintzeari: interneten da beste inork alokairuko amarik behar badu.

**Ikasbil. HABE (egokitua).**

**Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)**

**Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)**

**Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)**

**Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)**

**Zirriborroetarako lekua (orri hau ez da zuzenduko)**

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



**4. HE / IRAKURMENA**  
**ERANTZUN ZUZENAK**

- 1. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «Nork erabaki zuen erle txikia handitzea?»

1.	A	5.	A
2.	B	6.	A
3.	C	7.	A
4.	C	8.	B

- 2. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «Hitzen gatazka»

1.	C	6.	B
2.	C	7.	A
3.	B	8.	A
4.	A	9.	B
5.	C		

- 3. ariketa: Txertatu testu zatia dagokion hutsunean
- Irakurgaia: «Elebitasun pasiboaren ajeak»

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Testu zatiak	D	C	J	A	E	B	G	I	F

**H aukera sobera dago.**